

POETRY III

Xabier Galarreta



Lege-Gordailua: SS-472/06

**Erdarazko testuak,
argazkiak,
eskaneatuak eta
irudi-tratamendua: Xabier Galarreta**

Itzulpena: Amaia Imaz

Elkarrekin egon ginen lehen aldian,
elkarri atxikita gelditu ginen eta, gero,



ez zen ezer gelditu:
itxaropenik eza txiki bat eta
zure sekulako oilasko aurpegia
besterik ez.
Benetan, oraindik
gogoan dut zure argiak
nire begiak itsutu zituela,
eta kontua da ez nagoela
ziur oilaskoa izan zen edo
zure edertasun harrigarria,
baina auskalo...
Begira, nire gizartea da,
nire denbora da,
nire labirintoa,
eta nik zu zauzkat, eta zuk
ni naukazu,
eta zure oilasko aurpegia
mezu zoro bat da,
inoiz ahaztu behar ez nukeena
gogorarazten didana:
garen ezereza,
gure asmo oneko asmoen krudelkeria
eta, azken batean,
hein handiagoan

edo txikiagoan, guztiok garen
salgaiaren balioan eta pisuan oinarrituta,
zorion handiagoa ematen digun hura.

Zatoz, egin ezazu bat festarekin. Ardoz, sexuz eta abestiz betetako orgia da.



Ongiaz eta Gaizkiaz gaindiko bidea adierazten dizuten lekura. Ongi etorri.

Urruneko doinuek durundi egiten dute, eta izango da distantzia sufrituko duenik. Zatoz, egizu bat festarekin, eta ez ezazu utz beldurrak nahas zaitzan. Bizitzan garesti dena larrutik ordainaraziko dizute, orain ematen baduzu amore. Mugaz gaindi, natura besterik ez. Hosto artean, amets baten eta bestearen artean, egin ezazu ardozko eta oroitzapenezko zure otoitza. Zatoz, adiskidea, esna zaitetz errealitate berri honetara, eta ez ezazu atzera so egin, ez bada X-k eta Y-k –Koordinatu nagusiek–

Nire begiradan sustraitutako jainko ankerrak,
ahutzetan gainezka egiten duen amaigabeko erokerian ere



bitxiak, jainkozkoa nabarmen
bereizteari darion
botereaz gaindiko ikara.
Hemen behean, guztia
berdina da beti.
Zure kanibalismoa
aspaldi egin genuen gure,
eta zeu zarenaren isla baino
ez gara. Guk, zure seme-alaba leialok,
dena irentsi dugu;
zure oroitzapena ere jan dugu.
Saturno, aguretxo maitagarri
eta ahazkorra, geu gara,
gogoan al duzu? Tren elektriko bat
oparitu zenigun Eguberri
aldean... Saturno,
zure eromena zaharkituta
dago, eta zure arima
nekatuta dago hainbeste irensteaz eta
hainbeste itxarroteaz ezertarako ez.
Modakutxo hori eskain diezazukegun
azkenetakoa da. Gero, argia
itzali egingo da, eta zu
ez zara inoiz gehiago izango
garai batean izan zinena.

Eta zure suntsipena, agian, gurea izango
da, ziur...

Harriek iraganean luzatutako ametsak erakusten dituzte; fauna mugiezina irudikatzen duen lekutik hots egiten dute. Begirada antzu eta misteriotsuak galdera



botatzen dio munduari, eta harrizko isiltasunezko tonek ezerezari erantzuten diote. Begiradak harri batetik bestera salto egiten duen bitartean, arratsa mailen artean labaintzen da poliki-poliki, eta sugandila

diskretu batzuek erremediorik ez duenagatiko alaitasun profanoa adierazten dute: hasieratik bukaeraraino urruntzen eta hurbiltzen gaituen joana. Marmar isilek durundi egiten dute harrietan, eta bidaiariak bidaiaren alferrikakotasuna sentitzen du une batez, desagerpena, bertan eserita, denborak ausikitako mailan, guri begira, etsipen aspertuz.

Begiradak magiko eta galduta igeri egiten du, eta gaueko izarren keinuak gudari ausartaren irudi armatua inguratzen du. Ezerk ez du beldurra adierazten, bizitzako eta heriotzako itzalez


oroitzapen batez,
promes batez
sustraitutako
etorkizunak
ezerezerantz
honezkero, ez du
soldaduaeren,
lurrean, hiltzorian
lantza iltzatuta
heriotzari,
axolagabe begira
gizatiarraren patu
baizik. Tronpetak
isiltasunera
Lehenengo izpien
dira, eta
betiereko



ahantzuraren aberrirantz, historia guztien arteko historia nagusiaren kamainarantz doazenei azken ohatzea eta harrera egiteko prestatzen den larreko belarren izpi zurbila dardarazten dute, pergamo zati batean edo herriaren zalaparta alaiarenpean zizelkatutako burdin hondarretan, urrun, gudariaren benetako gurutzada gertatzen den lekutik oso urrun zokoratutako bizitzei, zuri, niri eta, aldi berean, inori ez, guztioi eta inori ez.

gaindi;
musu batez,
gaindi. Iraganean
gudariak
eskaintzen dion
begiratzen du eta,
etsaia ikusten,
gizakiaren, agian,
datzan, erraietan
duen eta mundua
agoniari
duen izaki isilki
bihozgabea
eta tubak
esnatzen dira.
agurrera esnatzen
danborrek
ezerezerantz,

Orain da amaiera. Bertan eserita gaude, galderen zain lehenengo, eta epaiaren zain ondoren, eta badakigu gureak egin duela, baina berdin dio.



Dagoeneko, ez dio axola, laster gure bizitza zaharretatik abiatuko den bidaiagatik ez balitz. Eta bertan esertzen gara, isilik, aulki hotz eta ilunean, bizitzaz gaindi, heriotzaren marra zeharraz ere gaindi. Bukaera da, eta hasiera da, baina gure gorputzak dar-dar egiten du izan genuen eta orain gurekin izango duten erruki eskasean pentsatzean. Edo, agian, hori guztia baino askoz ere hobea izango da. Onberatasunaz edo krudelkeriaz gaindi, agian, badago

itxaropenik oraindik. Ez dakit. Inork ez daki, bertan eserita dagoenean, aulkian, galdeketako lehenengo galderen zain. Dakigun gauza bakarra da epaia emango dela eta, agian, lehenengo aldiz, zor zaiguna emango zaigula. Gure hilobian, axolagabe eta hotz, behinola izan ginenaren bilgarria datza.

Pasioaren eta ahanzturaren fruituak zientziaren zuhaitzetik desafioka zintzilik daude, barregura ematen digun bekatuaren oroigarri –hainbeste egin ditugu!–.



Zuhaitza eta
zerua, mehatxua
bezala, baina eta
baita itxaropena
bezala ere. Zer
egin genezakeen
gora so egin eta
fruitu
zoragarriak
begiratu eta
euren deia
entzun baino...
Nahikoa zen
besoa altxatzea,
bertan
baitzeuden
guztiak.
Tentazioa
inguruan dugun
guztiaren

jainkozkotasunaren zati bat da. Garai batean, Egilea ere izan al zen tentaldian? Eta zer gertatuko zatekeen tentaldian erori beharrean –gu egin beharrean– zuzentasunera eta ahanzturara bota bagintu? Zorionez, Jainkoari ere gustatzen zaio poesia.

Bere begirada ustekabeaz sartzen da, ulertezintasunaren murrua zeharkatuz.
Erantzun isileko galderak. Itxurazko tristura. Egia esan, isiltzen duen bakarra



benetako
erantzuna da.
Aurpegiak eta
muruak
pintatuta bat
egiten dute
argian zehar,
lausotu egiten
dira eta,
azkenean,
batak bestea
osatzen du,
aurpegiak eta
muruak;


bereizezin eta, hala ere, gorputz bakarra eratuz, materiala eta materiagabea
aldi berean, begirada inork begi ninietan bi margolan izugarri –edo eder–
zintzilikatzeke sartuko dituen bi iltzeetan tinko. Begiradak barnetik irekitzen
zaitu, ontzi irekigailuak bezala, eta, orduan, zeuk ere begiratzen duzu, eta
erori eta zuloaren, begiradaren, zure ametsaren –edo berearen– barnealderantz
labaintzen zara. Infinituan ibiltzen zara zure hego pare berriaz.

Konplexutasunaren sinpletasuna: hain erraza dirudi...



Eta, hala ere, lau urte izan behar dituzu horretarako. Ez du besorik, ez eskurik, ez hatzik, ez leporik, ez... baina guztia du. Nire buruaz ari naiz, ni, marrazkia, eta zuri diotsut, nire marrazkiaren islari. Zure burua ispiluan begiratzeko duzunean, begira ezazu arretaz besoren bat falta zaizun, hankaren bat, hatzak... Begira nazazu ondo, eta esan iezadazu ni ez al naizen zeu, guztiok... Ez dut eskurik, baina besarkatu egin zaitzaket; ez dut hatzik, baina atximurka ederra egin diezazuket. Marrazkiko orria lausotu egin da puntu suharretan. Puntu bakoitzetik ni bezalako marrazki berri bat sortuko da, nire berdina eta, horrenbestez, zurea. Urak bakarrik izutzen nau. Disolbatu egiten nau: hiltzeko beste modu bat, desagertzekoa. Hura, eta denbora, nire marrazkia ezabatuko duena, galdu eta suntsitu egingo duena; eta orduan, beste horrenbeste egingo dit niri, eta zuri. Begira, nire lau urteak ere urtzen hasi dira dagoeneko. Bueno, betor ura, eta disolba naza! Hain txarra ere ez da izango...

Zerua puzzlea da. Hilik dago. Zeruak amorruez egiten du dir-dir hasiera batean eta, ondoren, ohartzen zarenerako, haragi mortu zati bat



besterik ez da, kolore urdin eta zurikoa. Eta lurretik hatz beltz, amorfo, ikaragarriak sortzen dira, hatz izugarriak zeruaren begietan sartu nahi bailituzten eta hodeiak hautsi eta Jainkoaren beloa urratu. Orduan, mirariaren bigarren zatia gertatzen da: puzzlea. Zerua zatitu egiten da, eta hodeiak eta airea eta hatzak eta lurra, guztia puzzle bizigabe bihurtzen da, mugiezin. Arazoa gero izango da,

haur batek ikusi eta jostailu bihurtzen duenean, eta, azkenean, piezaren bat galtzen duenean –guztiak galtzen ez baditu, behintzat–.

Pentsamendu batek ihes egin digu. Gure garunetik gora egin du, eta ezerezaren eta airearen eta espazioaren



eta hodei zurizko itsasoaren erdian ainguratutako lekuen konkistari ekin dio. Berez jolasa den pentsamendua: hasiera batetik abiatzen da eta, boilur erraldoi bat bezala, zeruaren aurka oldartzen da, erruki gabe eta desafioka. Zuhaitz pentsamenduak edo pentsamendu zuhaitzak badu ahanzturarantzko harritze kutsu bat, eta bere burua suntsitzeko sen nabarmena, zuhaitz aldetik eta pentsamendu aldetik. Edonola ere, honezkero, argi dago ez dela ez zuhaitza, ezta pentsamendua ere. Halakoxekoak dira gizakion bizitzak: ez dakigu ziur zer edo nor garen. Ahanzturarantz abiatzen gara, itxaropenik eza eta handiuste zapaldu bera dugula, ezpainetan hiltzen zaizkigun eta, adarretako ihintza edo, haren jantzia bailitzan, zuhaitz pentsamenduaren enborrhari atxikitako euria bezala, tantaka nekez erortzen diren hainbeste gauza adierazi nahiko balituzte bezala. Gorantz so egiten

dugu, eta duela unetxo bat izan dugun ideia zenbat hazi den ikusten dugu. Geldiezina da dagoeneko. Pentsamenduak ihes egin du, eta gu bertan gautza betiko, gure asmoen sustraian harrapatuta.

Eman iezadazu zure hitza. Utzi
iezedazu gida nazazun. Hain eroso eta



erraza da lerratzea,
inongo erabakitan ez
pentsatzea... Guztia
zure esku dago. Artzaina
edo basoetan bihurri
jolasten diren iratxoen jainkoa
bezalakoa zara.

Eta, orduan,
zu iritsi eta dibertsioa
amaitu egiten da:
ordenantzak, lege sakratuak,
zehatz-mehatz bete beharreko
araudiak eta ezin konta
ahala betebeharrak. Baina,
onartu egin beharrean
nago, hain eroso da,
hain erraza da lerratzea,
erabakiei, norbere
pentsamenduari
uko egitea, eta
“pentsamendu greba” hastea...
Horixe da nonahiko
jainkoa izatearen abantaila
nagusia, gutaz
arduratuko den artzaina.
Hartara, gauza bat baino
ez da behar:

otoitz egiten jakitea, eta
ahantzurari ematea... azken
egunera arte.

Gaua iristen da, eta Parisko terrazak orrazten ditu.

Bertan gelditzen gara, baso hutsa eskuetan, eta pentsatzen



dugu geu ere gaudela
pixka bat hutsik, eta
nekatuta: mila urteko
itxurako nekea, egun
oso bat baino gehiago,
mila urte pasatu bagenitu
bezala oinez, edo gehiago...
Terrazan ez da gelditzen
apenas inor: gaua eta
berehala arkupeetan galtzen
diren bikote batzuk
besterik ez. Paris
urrun dago, eta haren
oroitzapena itxuragabe
datza gure garunetan.
Egia esan, inoiz ez zen izan
zela uste genuena; aitzitik,
izan zedila nahi genuena
izan zen. Eta gure nahiek,
ahituta dagoeneko,
Paris urrun eta hotz
bateko terraza itxuragabe

baten oroitzapena bakarrik utzi digute..

Bertan daude gure energiaren kontagailuak. Ematen dugun urrats bakoitza, arnasten dugun aire ahokada bakoitza, kliska bakoitza eta pentsamendu bakoitza



Fabrikako kontagailuetan erregistratzen dira. Ez dira gureak, kontagailuak; ez gara euren jabe. Maileguz funtzionatzen dute. Gure gorputzak energia kontsumitzen duen bitartean, maileguz esleitzen dira. Gero, eraldaketa gertatzen da, ezereza, osotasuna. Badago kontagailuak norberarekin batera hiltzen direla pentsatzen duenik;

bere burua engainatzen du: kontagailuak ez dira inoiz hiltzen. Berriak zirenean ere, kalamastra itxura hori bera zuten, baina gurpiltxoia beti, beti mugituko da betiere, dela guretzat, dela Ordezkoarentzat, dela Fabrikarentzat... Ez dakit nor den misterioitsuagoa, gu ala haiek, kontagailuak.

Gure sentsualtasuna, gure amorrua, gure galera,
gure desira, gure erotismo zurbila... bertan datza biluzik.



Olatuek egotzitako
gorpua bezala datza bertan,
baina ez dago hondartzan,
gure etxeko salatxoan baizik.
Eta bertan dago orain, geldi,
adeitsu, etsita, kitzikatuta,
axolagabe... Nola jakin zer
gordetzen duten urruneko
murruek? Gure garunak
hain joera handia duen
errealitate birtualaren mugetan
itxitako fantasia da. Bertan
datza, geldi, eta ez gaude ziur

bertan datzana ez ote den gure sentsualtasun
biluzia, gure amorru erotizatua, gure desira
galdua, gure erotismo zurbila... baina
gorpua bertan datza, olatuek egotzita agian.

Errusiar estatuatxo bitxiak, behin eta
berriro zizelkatuak eta behin eta berriro,



beti errepikatuak,
aspertzeraino, baina
euren monotonia errepikakorrean
ezinbestekoak, gizakiak
bezala; badirudi haiengandik
klonatu dutela euren tailu
sorgindua. Guztiek begirada
pixka bat desbideratzen dute,
handienak izan ezik:
ikusi egin gaitu, eta
begien indarra areagotu du,
eta dagoeneko ezinezkoa da
ihes egitea. Halaxe fabrikatzen
dituzte! Begiratu egiten bazaituzte,
zureak egin du; bihar,
haietako bat izango zara.
Eta, geldiki, isilpean,
elkartu egiten dira,
halabeharrezko sorginkeria
bete ostean, galdutako, betiko
desagertutako distira ezagunaren
bila. Bertan daude, egun batean

gu hemen egon ginen gisa berean.

Deabrutxoak esna amesten du, eta haren irribarre
gaiztoa seinale nabarmena da: badaiki nor den hurrengo



biktima. Nagusia, Luzifer
Handia, harro egongo da,
eta sekulako arrakasta
iragartzen dio maila gorenerako
lehian. Deabruak esna
amesten du, eta geu gara
ametsaren gaia. Ikusten dugunean,
hotzikarak hartzen du
gure bizkarrezurra, eta
ingurura begiratzen dugu,
ihesbideren baten bila,
baina deabrutxo gaiztoaren
ametsak atzitu egiten gaitu.
Ametsaren gaia gara, protagonistak,
eta, goazen tokira goazela,
haren tiraniak betiere harrapatuko
gaitu, eta horregatik egiten dugu
otoitz –otoitz egitea bada hori, bederen–,

ametsetatik esnatu eta indarberritzeko
lo kuluxka bat egiteko erabiliko dugun
beste epe bat, ordu batzuetakoa besterik
ez bada ere, emango digun unearen
esperoan.

Barre egiten du edo, besterik gabe,
hortzak erakusten ditu. Mila bider galdetu diot,



baina inoiz ez dit
erantzun nahi izan
–edo erantzuten asmatu–.
Horrela, lotuta, sabaiko habeari
heldutako pentsamendua
bezalakoa da, garuneko espazio
mugagabeen harrapatutakoa.
Galdetzen diot ea barre egiten
duen edo, besterik gabe, hortzak
erakusten dituen, asmoa
dena delakoa ere.
Inork ez daki, ez berak, ez nik.
Horrela ikusten dut, tentsio horri

lotuta, eta, ohartzen naizenerako,
sokaren berotasuna sentitzen dut
eskumuturretan, nire pentsamendua
askatu eta, milaka loturatatik aske,
aireratu egiten den bitartean.

Objektu exotikoek ere dute gudan proiektatzen den begirada;

ez dugu guk geuk bakarrik begiratzen. Egia esan, ez gaude ziur nor den behatua,



izaki exotikoa. Inora ez, inondik ez egindako bidaia baten hondakinak dira, erabateko mugiezintasunaren aldeko aldarrikapen modukoak. Azken batean, guztiok susmatzen dugu: ez du ezertarako balio aldatzeak, antzokia bera da, agertokia bakarrik aldatzen da, eta, noizean behin, norbaitek amaitutzat ematen du emanaldia, eta baita

antzezpen denboraldia ere. Eta, agian, obra berri bat iritsiko da, agian, aktore berriduna, baina lekua, antzeztokia, antzokia bera bertan egongo da beti, espazioko orbitari lotutako planeta bezala edo begiratzen asmatu zuenaren begiradan betiko harrapatutako hodeia bezala.

Espaziontzi itzelak harro erakusten ditu izarretako metalezko pieza koloretsuak. Dena prest dago bidaia handirako. Batzuek eta besteek



lehenengo elementuarekin amesten dute, lehenengo harriarekin eta lehenengo bizi dardararekin.

Espazioko atomo bakoitza aztertzen du eta, ordua heltzen den bitartean, hartzaroa helduentzat bezain ezin barneratuzkoa den tramankuluaren barnean itxaroten du.

Agian, amets fabrika da, edo txokolate eta gozoki fabrika... Barnean, Ozeko aztiak sorginkeriak prestatzen ditu, harrian sartuko den ezpata, orakuluak leiarrak distirarazten ditu, eta Gepettok Pinocchio berriro asmatzen amaitzen du. Milaka botoik kontrol mahaia argitzen du, espaziontziko gelek –inork

ez du lortu guztiak zenbatzerik– dir-dir metalikoa egiten dute, eta asmakuntza zoragarria abian da bere buruaren konkistarantz, konkistarik handienerantz, eta ezinezkoenerantz.

Stop saihestezina, Stop bikoitz eta
zatitua, gu nahasteko asmatua. Bertan dago,



inoranzko leku batean,
baina lurreko bideez gaindi.
Hil gara, atzean utzi nahigabea,
ezintasuna, amorrua, beldurra,
tristura... Bertara goaz,
mamu itxura dugula,
bera ere mamuzkoa den seinalearekin
topo egin arte. Stop.
Zehar esana ote da, pentsatzen dugu
halako aldarte onean. Kontua da
bertan dagoela, fosforito itxura duela.
Une batez, askoz ere lehenago
gelditu behar ez ote genukeen
galdetzen diogu gure buruari.
“Eta, orain, zer axola dio?”,
iradokitzen du ez entzunarena egin
duen gure ni-ak.
Eta ibiltzen hasten gara.
“Zer gehiago gerta dakiguke,
hilik baldin bagaude?”.
Oraindik hil zaporea duen barretxo
batek alde egiten digu; kiratsak denbora
apur bat behar du guztiz desagertzeko.
Eta, orain, bai, orain prest gaude,
eta berehala ulertzen dugu dena:
lehenengo urratzea, urratze hantustetsu
eta ezin azalduzkoa,
inguratzen gaituen guztiaren misterioaren
azalpen bakarra.

Eta, horrela, aurrera jarraitzen dugu,
islatzen den leihoaz ohartu gabe.

Ez zegoen zalantzarik. Komuna piztu egingo zen... edo antzeko zerbait. Argi bat ateratzen zen pixatokitik. Egundoko zerbait gertatzear



zen, baina ez nekien zer. Hasiara batean, beste edozein bezalako komuna zen, baina argi hori... Naturaz gaindikoa zirudien. Jainkoaren mezua ote zen? Agertzeaz zitzaidan goiargia ote zen, agian? Edo bankuek patentatutako zuntz optikoko sistema berria ote zen, laburpenak bi erabilera izateko moduan helarazteko? Ez nekien, baina jakitea denbora kontua besterik ez zen. Tunelaren hondorantz begiratu nuen, eta nire pentsamendu guztiak behera erortzen zirela iruditu zitzaidan; begiak ere sentitu nituen une batez zuloetatik atera eta... denboraren tunel horretan desagertzen! Zulo beltzean! Bai, bai, horixe. Zer baboa! Nolatan ez nintzen lehenago konturatu! Zulo beltza! Etxean! Niretzat dena!

Aparta zen... Kristorena zen!